

PALINDROMOAK

Deskribapena: Idatz makina baten irudiak ageri dira.

Kike (off ahotsa): Kultiapov-ek, “p” letraz hasten diren berrogei mila hitz dituen eleberria idatzi zuen. Zoritxarrez, edo zorionez, ez dago euskarara itzulita eta errusiera ez badakizue, ezingo duzue obra mardul honetaz gozatu. Baina jarrai dezagun, hitz bidezko beste jolas batekin!

Deskribapena: Kike eta Markos Gimeno kalean elkarrizketan agertzen dira.

Kike: “Markos, kamiseta dotorea ekarri diguzu, e! Zer da hori?”

Markos: “Bai, “ignorongi!””

Kike: “Ignorongi!”

Markos: “Palindromoa”

Kike: ““Ignorongi – ignorongi”. Ta hau zer da?”

Markos: “Eskumatik ezkerrera zein ezkerretik eskumara berdin irakurtzen den testua, testu simetrikoa.”

Kike: “Eta zer esan nahi du honek, “ignorongi?””

Markos: ““Ignorongi”, bueno, hau da, “ignorongi”, ignorantzian ongi bizitzea, hau da “Matrix”-en esaten zutena, ezjakintasuna zoriontasuna da. Kasu honetan Sokrates da historiako lehenengo ignorantea edo ezjakina, aitortua, berak esan zuelako “ezer ez dakidala dakit bakarrik”.”

Kike: “Aizu, eta palindromoak nola sortzen dituzue, ze, “aza”, “ama”, horiek errexak dira baina zailagoak ere badituzue!”

Markos: “Bai, badaude begi-bistakoak diren palindromoak, hau da, hitzak ikusten direnak palindromoak direla eta badaude beste batzuk, konposizio lan bat dutenak, hau da, luzeagoak, esaldiak direnak...”

Kike: “Eta nola hasten zarete?”

Markos: “Ba, hitz batetik abiatuta, adibidez, “aurre” hitza, “aurre” buelta emanda “errua”. Ba gero ja da konposaketan aritzea, ezta? Argi euki behar dena da erdian dagoela simetria ardatza, palindromoak testu simetrikoak dira; “aurre/errua” bueno, ba horrela ez dauka zentzu handirik, bueno hor aukera daukagu edo erdian letrak gehitzea edo alboetan letrak gehitzea, ezta? “aurrekokerrua”, hor badaukagu palindromo bat, galdera-ikurrarekin, “aurrekok errua?” Eta erantzuna beste palindromo bat izan daiteke: “atzekok ezta””

Kike: “Kontxo! Eta zeintzuk dira zure palindromorik gustokoenak?”

Markos: “Aipatzekotan adibidez “ero maite beti amore” edo “nik eta bogartek ke trago batekin””

Kike: “Zer ez zenukete zuek egingo!”

Markos: “Edo niri asko gustatzen zaidan bat be bai, “esanik erruz egi bat eta bi gezurrekin ase””

Kike: “Kontxo! Hori ja filosofia da, e!”

Markos: “Bueno...”

Kike: “Zuk gainera bestelako jarduerak ere egiten dituzu palindromoen inguruan, ez?”

Markos: “Batez ere, bloga daukat, “zerorajaso.com”, eta bertan plazaratzen ditut astelehenero, eh, palindromo ariketa bat, hau da, palindromo bat izkutatzen dut eta jendeari erronka botatzen diot pista batzuei jarraituz palindromoa topatu egin behar da, ezta? Palindromo tailerrak ere ematen ditut, e, euskaltegietan, edo eskoletan, eta abar, jendeak normalean ez du ezagutzen, euskeraz are gutxiago...”

Kike: “Eta laister sorpresatxoren bat ere bai, ez?”

Markos: “Maiatzean aurkeztuko dut liburua, ba, bildumatxo bat izango da, palindromo ariketen bildumatxo bat “131 aza” deituko da eta bilduko ditu ehun eta hogeita hamaika palindromo ariketa, blogean landutakoak, gehi berri batzuk ere.”

Kike: “Markos, eta guretzako oparirik, badaukazu?”

Markos: “Bai, ba, palindromo bat egin dizuet, da, “lau tribu birtual””

Kike: ““lau tribu birtual – lau tribu birtual” bueno, ederra! Ba mila esker Markos! Bueno, ondo segi! Aio!”

Markos: “Zuei, eskerrik asko! Agur!”